

ERRETERIAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA



Plan Orokorraren Bulegoa
Oficina del Plan General

IX. KULTUR ONDAREA



IX.01 EUSKAL KULTUR ONDAREARI BURUZKO 7/1990 LEGEA

7/1990 Legeko zioen adierazpenean hau esaten da: "Euskal kultur ondarea da euskal herriaren nortasun-adierazgarri nagusia eta herri honek mundu osoko kulturari kondairan zehar eman diotenaren erakusgarri garrantzitsuena. Kultur ondare honen jabe euskal herria da. Kultur ondarea, honen lege jaurpidea eta jabetza dena dela, babestea, aldezte eta aberastea da herri-agintarien jarduneko oinarritzko antolarauetako bat.

Alde honetatik, Euskal Herriko Autonomia Estatutuak Autonomia Elkartearen bakarreango aginpideztat jotzen ditu Estatuaren jabetzapekoen besteko kultura, kondairatikako ondarea eta agirigordetegiak, liburutegiak eta erakustetxeak. Kondaira-Lurraldean Legeak, bere aldetik, lurralde horietako foruzko erakundeei kondaira eta artezko monumentu eta arkeologi-aldeetikako ondarea zaintzeari, hobetzeari, horri bere onean eusteari eta, hala behar izanez gero, hondalanak egiteari buruzkoan legeak osabideratzeko eta egiteratzeko aginpidea eta bere jabetzapeko agirigordetegi, liburutegi eta erakustetxeei buruzkoan bakarreango aginpidea ematen die.

Kultur ondarearen Lege izenez aurkeztu, horrek araupetzen dituen gai guztiak, kondaira-ondarea, agirigordetegiak, liburutegi eta erakustetxeak, barne hartzeko kultura hitza egokiagoa eta balioagarritasun handiagokoa dela uste izateagatik, eta kultura historia baino adierazpen zabalagoa dela uste izateagatik aurkeztu da, kulturaren barruan historia ere osagai bat gehiago izanik sartzen da eta."

Bestalde, 2. artikuluan hau esaten da:

- 1.- *Duten kondairatikako, artezko, hirigintza, etnografi, zientzi, teknika gizarte-aldeetikako balioagatik, kultura-interesgarritasuna izanezko eta, beraz, babes eta aldeztepena merezi duten ondasun guztiek osatzen dute kultur ondarea.*
- 2.- *Lege honen ondoriotarako, euskal herriko kultur ondarea osatzen duten eta zermugatu eta zerrendatu daitezkeen ondasunak, honako maila hauek baten sailkatu beharko dira:*
 - a.- *Monumentua: honelakotzat, banan-banan hartuta, nolabaiteko kultur interesa duten ondasun higigarri zein higiezineko guztiak jotzen dira.*
 - b.- *Monumentu Maltzoa: honelakotzat, kultur batasuna osatzen duten ondasun higigarri zein higiezinezkoen maltzo guztiak jotzen dira.*
 - c.- *Kultur gunea: honelakotzat, iraganeko izan eta euskal herriaren kultura eta bizikera-adierazgarri nabariei atxikiriko toki, ekintza, sorkuntza, sinismen, tradizio eta gertakariek osatutakoa jotzen da.*



Plan Orokoraren Bulegoa
Oficina del Plan General

Horrez gain 4. artikuluan hau esaten da: "Lege honen ondorioarako, honako hauek dira gaitasundun erakundeak:

- a) Eusko Jaurlaritza.
- b) Foru Aldundiak.
- c) Udalak.

Azken horien inguruan, 4.2 artikuluan hau esaten da: "udalei dagokie berariz euskal herriko kondairatikako ondarea osatzen duten eta bakoitzaren udal mugartean kokatutako ondasunen kulturazko balioa goraltzeko eta ezagutzera emateko lana. Presako kasuetan, interesgarritasuna arriskuan izan dezaten kondairatikako ondare horretako ondasunei bere onean eusteko beharrezko diren badaezpadako neurriak hartzea ere badagokie. Guzti hori, lege honen nahiz legezko beste manuen bidez berariz agintzen zaizkien egitekoen kaltetan gabe."



IX.02. HISTORIA ETA ARKITEKTURA ONDAREA

IX.02.01. Hirigune historikoa

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Errenteriako Hirigune Historikoa Kultur Ondasun Monumentu Multzoz izendapenez kalifikatu zuen eta hori zaintzeko arauak ezarri zituen, maiatzaren 7ko 101/1996 Dekretuaren bidez (1996ko maiatzak 28ko EHAA).

Bestalde, Donejakue Bidea Monumentu Multzoz izendapenez Kultur Ondasun sailkatu zen, urtarrilaren 25eko 14/2000 Dekretuaren bidez (2000ko otsailaren 11ko EHAA). Dekretu haren bidez, gainera, EAEn bi ibilbide ezarri ziren: kostaldeko bidea eta barrualdeko bidea. Errenteriako udalerria lehenengoan dago, Hirigune Historikoa eta Magdalena Andre Mariaren basilika ukituz.

7/1990 Legeko 10. artikuluan hau esaten da:

10.1. *Euskal kultur ondareko ondasunak izan eta, duten garrantzia edo berebiziko balioagatik, babestea herri-zuduzko izan eta berariz horrela erabaki dadinekoak joko dira zermugatutako kultur ondasuntzat.*

10.2. *Honelakoetan, multzoaren osagarri bakoitzaren berarizkotasuna nahitaez aldarrikatu beharrik gabe, multzo osoarena aldarrikatzea aski izango da.*

101/1996 Dekretuan, eremuan dauden elementu higiezin bakoitzaren ezaugarriak aipatzen dira; horrez gain, ondasun horiek babes kategoriatan edo mailatan sailkatzen dira:

- Babes berezia duten elementuak.
- Erdi-mailako babesa duten elementuak.
- Oinarrizko babesa duten elementuak.
- Elementu ordezkagarriak.
- Bat ez datozen elementuak.
- Hiri-elementuak.

Babes berezia duten elementuak

Apartekoak izan eta arkitektura, arte, historia edo kulturaren aldetik berebiziko balioa edukitzeagatik kalifikatutako kultur ondare-mailako monumentu izendatu diren ondasun higiezinak eta herri-ondasunak jotzen dira babes berezia merezi duten ondasuntzat, baita



Plan Orokoraren Bulegoa
Oficina del Plan General

aipatutako maila horretan kalifika litezkeenak ere. 101/1996 Dekretuan (I. Zerrendan) elementu hauek agertzen dira:

- * Jasokundeko Andre Mariaren parrokia-eliza.
- * Udaletxea.
- * Santa Klara kaleko 1 zenbakian dagoen eraikina (Zubiaurre jauregia)
- * Orereta kaleko 7 eta Goiko kaleko 11 zenbakietan dagoen eraikina (Torrekua)
- * Goiko kaleko 24 zenbakian dagoen eraikina (Morrontxo)

Erdi-mailako babesa duten elementuak

Erdi-mailako babesa behar duten elementuen artean, inbentariatutako ondasuntzat hartutako monumentuak daude, baita inguruaren itxuran garrantzia handia izateaz gainera, euskal kultur ondarearen osagai izan eta horretarako balio nahikoa duten elementuak ere.

101/1996 Dekretuan (II. Zerrendan) elementu hauek agertzen dira:

- * Eliza kaleko 8 zenbakian dagoen eraikina
- * Eliza kaleko 21 zenbakian dagoen eraikina
- * Orereta kaleko 5 zenbakian dagoen eraikina
- * Goiko kaleko 9 zenbakian dagoen eraikina
- * Kapitanenea kaleko 4 zenbakian dagoen eraikina
- * Kapitanenea kaleko 6 zenbakian dagoen eraikina
- * Andra Mari kaleko 3 zenbakian dagoen eraikina

Oinarrizko babesa duten elementuak

Arkitektura, historia edo artearen aldetik balio nabarmenekoak izan gabe, tipologiari edo inguruari begiratuta ondare eraikiaren zati interesgarria osatzen duten elementuak izango dira babes-maila honetan sailkatuko direnak.

101/1996 Dekretuan (III. Zerrendan) elementu hauek agertzen dira:

- * Kapitanenea kaleko 2 zenbakian dagoen eraikina
- * Kapitanenea kaleko 3 zenbakian dagoen eraikina (Udaletxearen 1. handitzea)



- * Kapitanenea kaleko 12 zenbakian dagoen eraikina
- * Kapitanenea kaleko 16 zenbakian dagoen eraikina
- * Kapitanenea kaleko 17 zenbakian dagoen eraikina
- * Kapitanenea kaleko 18 zenbakian dagoen eraikina
- * Andre Mari kaleko 1 zenbakian dagoen eraikina
- * Andre Mari kaleko 2 zenbakian dagoen eraikina (Udaletxearen 2. handitza)
- * Andre Mari kaleko 6 zenbakian dagoen eraikina
- * Andre Mari kaleko 14 zenbakian dagoen eraikina
- * Santsoenea kaleko 31 zenbakian dagoen eraikina
- * Santsoenea kaleko 19 zenbakian dagoen eraikina (beheko oina)
- * Beheko kaleko 2 zenbakian dagoen eraikina
- * Beheko kaleko 20 zenbakian dagoen eraikina
- * Beheko kaleko 9 zenbakian dagoen eraikina (behe oina)
- * Erdiko kaleko 3 zenbakian dagoen eraikina
- * Erdiko kaleko 5 zenbakian dagoen eraikina
- * Erdiko kaleko 7 zenbakian dagoen eraikina
- * Erdiko kaleko 9 zenbakian dagoen eraikina
- * Erdiko kaleko 11 zenbakian dagoen eraikina
- * Erdiko kaleko 16 zenbakian dagoen eraikina
- * Erdiko kaleko 26 zenbakian dagoen eraikina
- * Erdiko kaleko 28 zenbakian dagoen eraikina
- * Erdiko kaleko 30 zenbakian dagoen eraikin (behe oina)
- * Eliza kaleko 1 zenbakian dagoen eraikina



-
- * Eliza kaleko 3 zenbakian dagoen eraikina
 - * Eliza kaleko 7 zenbakian dagoen eraikina
 - * Eliza kaleko 9 zenbakian dagoen eraikina
 - * Eliza kaleko 11 zenbakian dagoen eraikina
 - * Eliza kaleko 13 zenbakian dagoen eraikina
 - * Eliza kaleko 15 zenbakian dagoen eraikina
 - * Eliza kaleko 19 zenbakian dagoen eraikina
 - * Eliza kaleko 23 zenbakian dagoen eraikina
 - * Eliza kaleko 25 zenbakian dagoen eraikina
 - * Goiko kaleko 4 zenbakian dagoen eraikina
 - * Goiko kaleko 20 zenbakian dagoen eraikina
 - * Goiko kaleko 22 zenbakian dagoen eraikina
 - * Goiko kaleko 8 zenbakian dagoen eraikina (beheko solairua)¹

IX.02.02. Kultur intereseko beste ondasun higiezin batzuk

Hirigune Historikoa

Hirigune Historiakoaren barruan, baina 101/1996 Dekretuko inongo zerrendatan agertzen ez den eraikin hau azpimarratu behar da:

- * Magdalena kaleko 3 zenbakian dagoen eraikina

14/01 Euren barruan, baina 101/1996 Dekretuan mugatutako eremutik kanpo, eraikin hauek aipatu behar dira.

- * Magdalena Andre Mariaren basilika (eraikin hau 14/2000 Dekretuko "kostaldeko ibilbidea"-ko IV. Zerrendan dago).
- * Andre Mari kaleko 8 zenbakian dagoen eraikina

¹ Dekertuan aipatzen da Goiko kalea 6 (beheko solairua).



Plan Orokorren Bulegoa
Oficina del Plan General

- * Andre Mari kaleko 12 zenbakian dagoen eraikina
- * Santsoenea kaleko 11 zenbakian dagoen eraikina
- * Santsoenea kaleko 13 zenbakian dagoen eraikina
- * Santsoenea kaleko 23 zenbakian dagoen eraikina
- * Santsoenea kaleko 25 zenbakian dagoen eraikina
- * Santsoenea kaleko 27 – 29 zenbakian dagoen eraikina
- * Kapitanenea kaleko 14 zenbakian dagoen eraikina
- * Kapitanenea kaleko 24 zenbakian dagoen eraikina
- * Magdalena kaleko 18 zenbakian dagoen eraikina
- * Magdalena kaleko 32 zenbakian dagoen eraikina
- * Magdalena kaleko 36 zenbakian dagoen eraikina
- * Foruen plazako 21 zenbakian dagoen eraikina
- * Beheko kaleko 3 zenbakian dagoen eraikina
- * Beheko kaleko 5 zenbakian dagoen eraikina
- * Goiko kaleko 10 zenbakian dagoen eraikina
- * Goiko kaleko 12 zenbakian dagoen eraikina
- * Goiko kaleko 16 zenbakian dagoen eraikina
- * Goiko kaleko 18 zenbakian dagoen eraikina

Hiri-esparruak

- * Alaberga auzoa

Arkitektura erlijiosoko eraikinak

- * Ama Agustindarren komentua
- * Zamalbideko ermita



- * Gaztelutxoko hilerri zaharra

Arkitektura militarreko eraikinak

- * San Markoseko gotorlekua
- * Txoritokietako gotorlekua
- * Arramendiko gotorlekua

Industria arkitektura eta ingeniartzako eraikinak

- * Fanderiako errota eta kanala
- * Garai bateko udal-hiltegia
- * ET/FV trenbidearen biaduktuak
- * Papelerako zubia
- * Loidiko zubia

Landa-arkitektura

- * Anabitarte baserria
- * Bentas baserria
- * Etxeberri baserria
- * Izturitz Bekoa baserria
- * Loidi baserria
- * Palazio Zarra baserria
- * Pokopandegi baserria
- * Tobar baserria
- * Txirrita baserria
- * Zamalbide baserria



IX.02.03. Erretaulak

Eusko Jurlaritzako Kultura Sailak EAeko hainbat erretaula Kultur Ondasun Monumentu izendapenez kalifikatu zituen, abenduaren 19ko 273/2000 Dekretuaren bidez (2001eko urtarrilaren 11ko EHAA). Errenteriako udal-barrutian, bi erretaula daude, biak Andre Mari parroikia-elizan daude; hauek dira:

- * Jasokundeko Andre Mariaren erretaula
- * Erretaula nagusia



IX.03. ARKEOLOGIA-ONDAREA

IX.03.01. Hirigune Historikoa

Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak Errenteriako Hirigune Historikoaren esparru arkeologikoa euskal kultur ondarearen inbentario orokorrean Monumentu Multzo izendapenez Kultur Ondare sartu zuen, otsailaren 12ko Aginduaren bidez (1998ko martxoaren 26ko EHAA).

Agindu hartan, sailburuak erabaki zuen "Errenteriako Udalari esparru arkeologiko hori babesteko, bere udal-hirigintzako planeamendu tresnan kontuan hartzea eskatzea, Euskal Kultur ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 44.2 artikuluan ezarritako betetzeko."

IX.03.02. Monumentu megalitikoak

Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak Gipuzkoako Lurralde Historikoan dauden estazio megalitikoak, banan-banan, Monumentu Multzo izendapenez, sailkatutako Kultur Ondasun deklaratzeko prozedurari hasiera eman zion, 2000ko maiatzaren 19ko Ebazpenaren bidez (2000ko ekainaren 12ko EHAA); estazio megalitiko horiek Ebazpenaren I. Eranskinean zerrendatutakoak dira. Gero, Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak espedientea jendaurrean jartzeko epea ireki zuen, 2001eko otsailaren 5eko Ebazpenaren bidez (2001eko martxoaren 5eko EHAA).

Errenteriako udal-barrutian, bi estazio megalitiko aipatu behar dira: Igoi-Akola eta Txoritokieta.

Igoi-Akolako estazio megalitikoa

Errenteriako udalerria ez ezik, Astigarraga, Donostia-San Sebastián eta Hernanikoak ere ukitzen ditu.

Estazio hau elementu askoren multzoa da. Altuera txikiko mendilerroa da. Aitzbitarteko kobazuloetatik hasi eta Hernaniko Fagollagaraino luzatzen da. Zonan, gaur egun, pinu asko aldatu badira ere, historian artzaintza izan da nagusi. Zonako zenbait monumentu megalitiko oso ondo kontserbatu dira.

Estazio megalitikoan hamalau monumentu daude. Horietatik ondokoak daude udalerrian:

- * Langagorriko kutxa.

Horretaz gain, ondokoak daude mugakide diren beste zenbait udal-mugartetan:

- * Akolako Lepua trikuharriak I eta II.
- * Arritxieta.



- * Igoigo Lepua I eta II.
- * Landarbaso I, II, III, IV, V eta VI.
- * Sagastietako Lepua I eta II.

Txoritokietako estazio megalitikoak

Errenteriako udalerria ez ezik, Astigarragakoa ere ukitzen du.

Estazio hau iruinari eta trikuharrien multzoak osatzen du. Gipuzkoan altituderik txikiena duen estazio megalitikoak da, 275 metroko sestra-kurbapean dago. Lurzoruan Behe Kretazeoko kareharria dagoen arren, monolitoa Triasikoko kareharritzkoa da. Antzeko lurzoruak, gertuen, estazio honetatik ordu batera daude, bidez; datu horrek berak interes historikoa du. Estazio honetan monumentu megalitiko hauek daude, Errenteriako udal-mugaratean:

- * Aitzetako Txabalako trikuharria.
- * Berrozpin trikuharria I, II eta III.
- * Txoritokietako iruinaria.

Horretaz gain, ondokoak daude Astigarragako udal-mugaratean:

- * Arregineako harrespila.
- * Ermañalde harrespila.

IX.03.03. Balizko Arkeologia Guneak

Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak Errenteriako balizko arkeologia guneak deklaratu zituen, 1997ko irailaren 11ko Ebazpenaren bidez (1997ko urriaren 30eko EHAA).

Hauek dira guneak:

- * Magdalena Andre Mariaren basiliza eta ospitalea.
- * Hirutasun guztiz santuaren komentua.
- * Renteriola / Fanderia edo Gabieriolako burdinola.
- * Añarbeko burdinola (urtegiko urpean)
- * Aitzbitarte II kobazuloa.



IX.03.04. Monumentu/Multzo izendatzeko proposatutako guneak

Errenteriako udal-barrutian, arkeologia-gune hauek aipatu behar dira:

- * Aitzbitarte III kobazuloa.
- * Aitzbitarte IV kobazuloa.
- * Aitzbitarte V kobazuloa.

IX.03.05. Katalogazio-erregimenaren formulazioa

Plan Orokor honen zehaztapenen dokumentu osagarri gisa, eta LLTB-76ko 42. artikuluan eta PEko 86 eta 87. artikuluetan ezarritakoarekin bat etoriz, Errenteriako udal-mugarteko gaur egungo eraikitako edo berezko elementuen zerrenda biltzen duen Katalogoa barne hartzen da, euren interes artistiko, kultural, historiko, ekologiko edo naturalistikoa dela-eta zaindu eta babestu beharrekoak, esku-hartze suntsigarri edo hondagarriak izan ez ditzaten.